BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

# BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK 2022KO AURREKONTUEN 475 ZUZENKETA-ESKE PARZIALEN EZTABAIDEA HASI DABE

- **Gaur goizean egindako saio bietan, Ogasun eta Finantzetako Batzordeak atzera bota ditu Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol, Azpiegitura eta Lurralde Garapen, eta Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria sailetako aurrekontuen aurrean aurkeztutako zuzenketa-eske guztiak.**

(Bilbon, 2021eko abenduaren 16an). Bizkaiko Batzar Nagusiek gaur hasi dabe Batzar Nagusietako taldeek 2022ko Bizkaiko Aurrekontuen aurrean aurkeztutako 475 zuzenketa-eskeen eztabaidea, Bilboko egoitzan. Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirola, Azpiegiturak eta Lurralde Garapen, eta Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria sailetako kontuak izan dira Batzar Nagusietako taldeen botoak jasoten lehenak. Ogasun eta Finantzetako batzordeak atzera bota ditu oposizinoko taldeek (EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia eta Talde Berezia-PP Bizkaia) aurkeztutako zuzenketa-eskeak.

Lehenengo saioan, oposizinoak Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren aurrekontuaren aurrean aurkeztutako 39 zuzenketa-eskeak defendidu ditu. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak horreetako bakotxa ezesten joan dira. Gauza bera gertatu da Azpiegituren eta Lurralde Garapenaren aurrekontuaren aurrean aurkeztutako 29 zuzenketa-eske parzialakaz.

Lorea Bilbaok zuzentzen dauen sailaren aurrekontua, beraz, aldaketa barik iritsiko da abenduaren 30eko osoko batzarrera. Kontu horreek gehien aldatu eikiezan planteamentuen artean, Talde Berezia-PP Bizkaiaren zuzenketa-eske bat nabarmendu da, programa baten partidea 400.000 eurotan handitzeko eta Udaleku hirueledunak sortzeko, eta baita EH Bilduren partida barri bat Euskal Errotak eraikina birgaitzeko proiektuari ekiteko. Bere aldetik, Elkarrekin Bizkaiak, Guggenheim Museoak kontzeptu desbardinengaitik jasoten dauena 4,4 milioi euro murriztea proponidu dau, eta milioi bi euro gehitzea udalerriek euren industria-ondarea babestera bideratutako partidan.

Imanol Pradalesek zuzentzen dauen sailaren aurrekontu-testuari jagokonez be, ez dau aldaketarik jasoko. Oposizinoko taldeen planteamentu batzuetan milioiak eskatzen ebezan aldaketak egozan, azpiegituretan inbertsinoak hasteko edo sendotzeko. Errekaldeko saihesbidearen bultzadak PPren eta EH Bilduren zuzenketa-eske bereiziak eragin ditu. Popularrek milioi bi euroko partidea eskatu dabe, eta koalizino abertzalearen testuak, Bizkaiko Parlamentuan epe barruan aurkeztu ziran herritarren alegazinoak jasoten ebazan. Horrez gain, koalizino abertzaleak 600.000 euroko

partidea eskatu dau Avanzadaren lurperatze osoa aztertzeko, eta beste 3 milioi euro Bilbo Metropolitarreko bidegorri sarea indartzeko, Sopuerta eta Castro arteko Herreroseko tunela egokitzea barru. Beste alde batetik, Elkarrekin Bizkaiak zuzenketa-eskea aurkeztu dau Azpiegituren Garapenerako programaren aurrean, Urbinagako Trukagailuaren lehenengo fasea 2022an hasteko.

Arratsaldean daborduko, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen ezezkoagaz, baztertu egin ditue Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko Sailaren aurrekontuari aurkeztutako 21 zuzenketa-eske parzialak. Asko Bizkaibusen maiztasuna hobetzera edo linea barriak sortzera bideratuta egozan, horreen artean Elkarrekin Bizkaiak Meatzaldeagaz, Zallagaz eta Karrantzagaz loturak izango dituen anezkak martxan jarteko aurkeztutakoak, bai eta EHUgaz, Enkarterrigaz, Txorierrigaz, Durangaldeagaz eta Lea Artibaigaz gaur egun dagozan ordutegiak hobetzekoak be. Popularrek, euren aldetik, autobus gehiago eskatu ditue Sestao-Trapagaran A3331 linearako. Eta Ezkerraldeak eta Uribe Kostak Leioako campusagaz daukien loturaren inguruko azterlana 150.000 eurotan kuantifikau dau EH Bilduk.

Oposizinoak metroaren 4. (Galdakao) eta 5. (Errekalde) lineak sustatzeko partidak eskatu ditu. Popularrek 6 milioi euro eskatu ditue azpiegitura horretarako 2022an, eta horrei 600.000 euro gehitu beharko litxakiez Meatzalderako seigarren linea ezarteko aukerea aztertzeko. Beste alde batetik, EH Bilduk BizkaiaBizi proiekturako aurrekontua eta Bidegorrien Sareko komunikazinoa mapakaz, liburuxkakaz eta panelakaz hobetzea eskatu dau, txartel bakarra ezarteaz gain.

Gaurko saioetan, azkenengo urteetan errepikau diran eskariak agertu dira barriro, Lantikeko aurrekontua murriztera bideratutakoak (oposizinoko hiru taldeak batu ditu, planteamentu ekonomiko desbardinakaz) edo goi-kargudunen soldatak murriztera bideratutakoak, besteak beste. Alderdi moreak % 15eko soldata murrizketea proponidu dau eta EH Bilduk % 25ekoa. Murrizketen atalean, Interbiak moduko soziedadeetara diru gitxiago bideratzea eskatu dau alderdi moreak.

HURRENGO BATZORDEAK:

**Barikua 17**

09:30 EKONOMIA SUSTAPENA
12:00 IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA

**Astelehena 20**

09:30 ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA

15:00 HERRI ADMINISTRAZIOA ETA ERAKUNDE HARREMANAK
17:00 GIZARTE EKINTZA

**Martitzena 21**

12:00 OGASUNA ETA FINANTZAK

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

# LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA INICIAN EL DEBATE DE LAS 475 ENMIENDAS PARCIALES A LOS PRESUPUESTOS DE 2022

- **En las tres sesiones celebradas hoy, la comisión de Hacienda y Finanzas ha rechazado todas las enmiendas presentadas por la oposición a los presupuestos de los departamentos forales de Euskera, Cultura y Deporte, Infraestructuras y Desarrollo Territorial, y Transportes y Movilidad Sostenible.**

(Bilbao, a 16 de diciembre de 2021). Las Juntas Generales de Bizkaia han comenzado hoy, en su sede de Bilbao, el debate de las 475 enmiendas presentadas por los grupos junteros a los Presupuestos de Bizkaia de 2022. Las cuentas de los departamentos forales de Euskera, Cultura y Deporte, Infraestructuras y Desarrollo Territorial, y Transportes y Movilidad Sostenible, han sido las primeras en recibir el escrutinio de los grupos junteros. La comisión de Hacienda y Finanzas ha rechazado la totalidad de las enmiendas presentadas por los grupos de la oposición (EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y Grupo Mixto-PP Bizkaia).

En la primera sesión, la oposición ha defendido las 39 enmiendas presentadas al departamento de Euskera, Cultura y Deporte. Los dos grupos que sustentan al Gobierno foral -Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos- han ido desestimando cada una de ellas. Lo mismo ha ocurrido después con las 29 enmiendas parciales que sumaba el presupuesto de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

El presupuesto del área que dirige Lorea Bilbao llegará, por tanto, sin cambios al pleno del 30 de diciembre. Entre los planteamientos que más podían alterar estas cuentas han destacado una enmienda del grupo Mixto-PP Bizkaia para aumentar en 400.000 euros la partida de uno de sus programas con la intención de crear Udalekus trilingües, y una nueva consignación de EH Bildu para comenzar el proyecto de rehabilitación del edificio Molinos Vascos. Por su parte, Elkarrekin Bizkaia ha planteado reducir en 4,4 millones de euros lo que recibe el Museo Guggenheim por diferentes conceptos, y aumentar en dos millones el apoyo a los municipios para que protejan su patrimonio industrial.

En lo que se refiere al texto presupuestario del departamento de Imanol Pradales, éste tampoco sufrirá variaciones. Existían también cambios millonarios en algunos planteamientos de los grupos de la oposición para iniciar o consolidar inversiones en infraestructuras. El impulso de la variante de Rekalde ha suscitado enmiendas

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

separadas del grupo Mixto PP Bizkaia y de EH Bildu. Los populares han demandado una partida de 2 millones de euros, mientras que el texto de la coalición abertzale venía a recoger el deseo de la ciudadanía plasmado por escrito en la fase de alegaciones. Asimismo, la coalición abertzale ha pedido, sin éxito, incluir una partida de 600.000 euros para estudiar el soterramiento completo de La Avanzada y otros 3 millones para reforzar la red de bidegorris del Bilbao Metropolitano, incluyendo la adecuación del túnel de Herreros entre Sopuerta y Castro. Por su parte, Elkarrekin Bizkaia ha enmendado el programa de Desarrollo de Infraestructuras para que se comience en 2022 la primera fase del Intercambiador de Urbinaga.

Ya por la tarde, el Parlamento de Bizkaia, con el no de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos nuevamente, ha rechazado las 20 enmiendas parciales presentadas al presupuesto del departamento de Transportes y Movilidad Sostenible. Muchas iban dirigidas a mejorar frecuencias en Bizkaibus o crear nuevas líneas, como las presentadas por Elkarrekin Bizkaia para poner en marcha tres lanzaderas con conexiones a la Zona Minera, Zalla y Karrantza, así como mejorar los actuales horarios a la UPV, Enkarterri, Txorierri, Duangaldea y Lea Artibai. Los populares, por su parte, ha pedido más servicios para la Línea A3331 Sestao-Trapagaran. Y EH Bildu ha cuantificado en 150.000 euros un estudio sobre las conexiones entre Ezkerraldea y Uribe Kosta con el campus de Leioa.

La oposición ha pedido, con diferentes enmiendas, partidas para el impulso de las líneas 4 (Galdakao) y 5 (Rekalde) del metro. Hasta 6 millones de euros han solicitado los populares para esta infraestructura en 2022, a los que habría que sumar otros 600.000 euros para estudiar una sexta línea a Meatzaldea. Por otro lado, EH Bildu ha pedido mejorar el presupuesto para el proyecto BizkaiaBizi y la instalación de mapas y paneles en la Red de Vías Ciclables, además de la implantación del billete único.

En las sesiones de hoy se han vuelto a repetir algunas demandas del pasado, como las destinadas a reducir el presupuesto de Lantik, que ha unido a los tres grupos de la oposición, aunque con planteamientos económicos diferentes. O las dirigidas a reducir las nóminas de los altos cargos. La formación morada ha planteado una reducción salarial del 15% y EH Bildu del 25%. En el capítulo de reducciones, la formación morada ha pedido que se inyecten el año próximo menos cuantías económicas a sociedades como Interbiak.

PRÓXIMAS SESIONES DE LA COMISIÓN DE HACIENDA Y FINANZAS PARA EL DEBATE DE ENMIENDAS PARCIALES:

**Viernes 17**
09.30 H. PROMOCIÓN ECONÓMICA

12.00 H. SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL

**Lunes 20**
09:30 H. EMPLEO, INCLUSIÓN SOCIAL E IGUALDAD
15.00 H. ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES
17.00 H. ACCIÓN SOCIAL

**Martes 21**
12.00 H. HACIENDA Y FINANZAS